

ERESBIL – MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA - KOKAPENA

ERESBIL Erreterian kokatua dago, Donostia (7Km) eta Irun-Hendaia (10Km) mugaz bestaldeko guneen tartean, Alfonso XI kaleko 2 zenbakian. Antzinako Niessen fabrikakoak ziren zenbait lokal erabiltzen ditu, [Niessen Kulturgunea](#) eta [Erreteria Musikal](#) -musika eta dantza eskola / udal konterbatorioarekin-batera.

ERESBIL ERAIKINA

Erreteriarako Udalak Eresbil Artxiboari lagapen moduan emandako eraikin birgaitua.

ERESBILek Alfonso XI kaleko zenbaki bikoitien aldetik du sarrera. 4 solairu ditu eta igogailua du.

BEHEKO SOLAIURA

Makinen gela, sarrera berrien gordailua eta bulegoko materiala bertan jasotzen da. Eresbilera iristen diren materialak txukundu eta antolatzeko bertan jasotzen dira.



LEHEN SOLAIRUA

Harrera lehen solairuan dago. Bertan administrazioa eta pertsonal teknikoa kokatzen da, eta horrezaz gain honako baliabide publikoak daude:

- . Liburutegiko kontsulta aretoa
- . Pianoa duen ikasketa gela
- . Irispide libreko liburutegia



BIGARREN SOLAIRUA

Ikus-entzunezko materialak jasotzen dira eta material horien inguruan lanean diharduten teknikariak ere solairu honetan kokatzen dira. Era berean, bi gune dituen eremu publikoa du:

- . Entzuteko aretoa, pianola duena
- . Erabilera anitzeko gela: bilerak, aurkezpenak, ikastaroak etabar...

HIRUGARREN SOLAIRUA

Paperean gordetzen diren materialen gordailu nagusia. Solairu honetan kokatzen da makina-gela.

